

BIZKAIAN TRIBUTU ITUNDUAK DIRELA-ETA BILDUTAKOA

2022KO ABUZTUA

I. ZIFRA GLOBALAK

a) Bildutako zenbateko likido osoa

Aurtengo abuztuan, tributu itunduak direla-eta bildutako zenbateko metatuak % 10,1eko gorakada izan du, iazko urtearekin alderatuta. Guztira, 5.546,1 milioi euro bildu dira; 2021. urtean, berriz, 5.039,6 milioi euro bildu ziren. Horrek diru-bilketa likidoan 506,5 milioiko alde positiboa dakar; gehikuntza hori ekitaldirako aurrekontuaren guztizko kopuruaren (8.386,9 milioi euro) % 66,1 da.

Emaitzak aztertzeko, kontuan hartu behar da bi ekitaldietan egiaztatu den diru-bilketan jasotako kopuruak ez direla homogeneous; izan ere, pandemiak zergadunen finantza-egoeran izandako ondorio negatiboak arintzeko aurreko ekitaldian zein egungoan hartutako neurriek eragina dute bai tributu-sarreretan, bai, nola ez, bildutako zenbatekoetan.

Barne-doikuntzei dagokienez, Bizkaiak 153,3 milioi euro gehiago ordaindu dizkie beste lurraldeei, hau da, % 19,4 gehiago. Bestalde, Estatutik jasotako doikuntzak % 38,4 hazi dira, hau da, 122,8 milioi gehiago dira.

ABUZTUAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa likidoa	6.046.551,6	5.509.623,2	536.928,4	9,7
FFAAen barneko doikuntza guztira	-943.522,8	-790.239,2	-153.283,5	19,4
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	5.103.028,8	4.719.384,0	383.644,8	8,1
Guztizko doikuntza Estatuarekin	443.054,2	320.217,5	122.836,8	38,4
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	5.546.083,1	5.039.601,5	506.481,6	10,1
Gauzatze-ehunekoa	%66,1	%68,6		



b) Gestio propioaren ondorioz bildutako zenbateko gordina eta itzulitako kopuruak

Gestio propioko zerga itunduen bidez bildutako kopuru gordina 7.309,4 milioi euro izan da, urtebete lehenago lortutakoa baino % 11,6 gehiago; izan ere, orduan 6.550,7 milioi bildu ziren. Itzulitako kopuruetan ere gehikuntza gertatu da (% 20,5); iaz 1.831,3 milioi euro itzuli ziren; aurtan, berriz, 2.206,4 milioi. Inguruabar bi horien ondorioz, diru-bilketa likidoak % 8,1eko gehikuntza izan du.

ABUZTUAREN BUKAERAN METATUTAKO DIRU-BILKETA				
mila eurotan	2022	2021	diferen.	%
Diru-bilketa gordina	7.309.381,1	6.550.680,3	758.700,8	11,6
Itzulitakoak	-2.206.352,3	-1.831.296,3	-375.056,0	20,5
Berezko kudeaketaren tributu itunduak	5.103.028,8	4.719.384,0	383.644,8	8,1

II. KONTZEPTU NAGUSIEN BILAKAERA

Zuzeneko tributuak direla-eta bildutako kopuru likidoak % 10,6ko igoera izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta; 2.870,7 milioi euro bildu dira, eta gorakada izan dute bai diru-bilketa gordinak (% 9,7), bai itzulitako kopuruak (% 4,0). Zeharkako tributuetan, berriz, 2.193,3 milioi euro bildu dira, hau da, % 5,1 gehiago. Igoera bildutako zenbateko gordinan (% 13,4) zein itzulitako kopuruetan (% 25,8) jazo da. Tasak eta beste diru-sarrerak batzuk % 0,8 hazi dira; zehazki, 39,0 milioi euro bildu dira aurtan, eta aurreko ekitaldian, berriz, 38,7 milioi.

ABUZTUAREN TRIBUTU ITUNDUEN DIRU-BILKETA									
mila eurotan	Diru-bilketa gordina			Itzulitakoak			Diru-bilketa likidoa		
	2022	2021	diferen.	2022	2021	%	2022	2021	%
Zuzeneko zergak	3.334.354,0	3.040.477,3	9,7	463.614,5	445.875,5	4,0	2.870.739,5	2.594.601,8	10,6
PFEZa	2.565.586,8	2.377.253,4	7,9	441.913,1	426.142,7	3,7	2.123.673,7	1.951.110,6	8,8
Sozietateen gaineko zerga	577.550,8	475.732,5	21,4	7.244,3	10.811,7	-33,0	570.306,5	464.920,8	22,7
Gainerako zuzeneko zergak	191.216,3	187.491,4	2,0	14.457,1	8.921,1	62,1	176.759,2	178.570,3	-1,0
Zeharkako zergak	3.933.909,4	3.469.676,9	13,4	1.740.653,8	1.383.602,6	25,8	2.193.255,6	2.086.074,3	5,1
BEZa	2.895.981,5	2.472.305,4	17,1	785.108,4	590.273,3	33,0	2.110.873,1	1.882.032,2	12,2
BEZa barneko doikuntza				643.532,0	490.351,4	31,2	-643.532,0	-490.351,4	-31,2
Zerga bereziak	909.966,5	881.479,8	3,2	310.674,1	302.233,5	2,8	599.292,5	579.246,4	3,5
Gainerako zeharkako zergak	127.961,3	115.891,7	10,4	1.339,3	744,6	79,9	126.622,0	115.147,1	10,0
Tasak eta Bestelako Sarrerak	41.117,8	40.526,1	1,5	2.084,0	1.818,2	14,6	39.033,7	38.707,9	0,8
BEREZO KUDEAKETA GUZTIRA	7.309.381,1	6.550.680,3	11,6	2.206.352,3	1.831.296,3	20,5	5.103.028,8	4.719.384,0	8,1
Doikuntzak Estatuarekin	700.112,0	517.661,9	35,2	257.057,7	197.444,5	30,2	443.054,2	320.217,5	38,4
Doikuntzak BEZa	657.026,2	472.967,5	38,9	10.731,4	11.109,6	-3,4	646.294,8	461.857,9	39,9
Doikuntzak Zerga bereziak	43.085,8	44.694,5	-3,6	246.326,3	186.334,9	32,2	-203.240,5	-141.640,4	-43,5
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	8.009.493,1	7.068.342,3	13,3	2.463.410,0	2.028.740,8	21,4	5.546.083,1	5.039.601,5	10,1



a) PFEZa

lazko abuztuarekin alderatuta, PFEZaren diru-bilketa likidoak % 8,8 egin du gora, bai bildutako kopuru gordinak % 7,9ko gorakada izan duelako, bai itzultako kopuruak 426,1 milioitik 441,9 milioira gehitu direlako (% 3,7).

Zergaren osagai guztiek goranzko bilakaera izan dute; salbuespena izan dira kapital higigarriaren etekinen gaineko atxikipenak, % 2,9 jaitsi baitira. Hala, gora egin dute lanbide-, enpresa- edo arte-jardueren ordainketa zatikatuek (% 16,0), lan-etekinen gaineko atxikipenek (% 6,3), ondare-irabazien gaineko atxikipenek (% 2,7), higiezinaren kapitalaren etekinen gaineko atxikipenek (% 0,6), eta, batez ere, sarien gaineko zerga bereziek; azken horien bilketa 23,0 milioira igo da aurreko ekitaldiko 6,8 milioietatik. Kuota diferentzialaren emaitza negatiboa txikiagoa da (-112,3 milioi euro, aurreko urteko -141,2 milioien aldean), diru-bilketa gordinaren hazkunde handia dela eta (% 12,4); itzulketetan hazkundera ez da hain handia izan (% 1,4).

b) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentziala % 30,3 hazi da (haren bilketa gordina % 28,5 igo da, 463,9 milioi bildu dira aurreko urteko 361,1 milioien aldean; itzulketen bolumena, berriz, 6,3 milioi izan da, % 37,5 jaitsi da). Aurreko epigrafean aipatu diren gainerako zergak kontuan hartuta, zergaren zioz bildutakoa % 22,7 gehitu da; izan ere, 2021eko abuztura arte lortutakoa 464,9 milioi izan zen, eta ekitaldi honetan bildutakoa, berriz, 570,3 milioi izan da.

c) Gainerako zuzeneko zergak

Gainerako zuzeneko zergetan bildu den kopuru likidoa % 1,0 gutxitu da; pasa den urteko abuztura arte, 178,6 milioi bildu ziren, eta aurtengo, berriz, 176,8 milioi. Emaitzak desberdinak dira zerga desberdinetan: hala, igoera egon da ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan (duela urtebete 14,6 milioi bildu ziren eta aurtengo 32,9 milioi) eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergan (% 4,7) eta jaitsiera oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan (-% 20,3), ondarearen gaineko zergan (-% 2,2) eta, bereziki, energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergan (-% 99,8); azken kasuan, zerga eteteak (elektrizitatearen prezioaren hazkunde geldiezia arintzeko neurria) eraginda.

d) BEZa

BEZari dagokionez, % 12,2 gehiago bildu da: iaz, 1.882,0 milioi euro bildu ziren, eta aurtengo ekitaldian 2.110,9 milioi bildu dira. Bilakaera positibo hori bildutako kopuru gordinan izandako % 17,1eko irabaziaren ondorioa da. Izan ere, 2.472,3 milioi biltzetik 2.896,0 milioi biltzera pasatu da, nahiz eta itzulketetan % 33,0ko igoera egon den. Bestalde, tributu hori dela-eta egindako barne doikuntzaren ondoriozko ordainketak % 31,2 hazi dira; guztira, 643,5 milioi euro ordaindu dira. Arabak 205,5 milioi jaso ditu (% 51,8 gehiago) doikuntza horretan, eta Gipuzkoak, berriz, 438,0 milioi (% 23,4 gehiago).



e) Zerga bereziak

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 3,5 egin du gora zerga berezien diru-bilketak; bildutako zenbateko gordina gehitu da (% 3,2) eta itzulitako kopurua ere bai (% 2,8). Bilketak igo egin dira zerga hauetan: tarteko produktuak (% 17,2), hidrokarburoak (% 3,5), tabako-laboreak (% 18,5) eta garagardoa (% 96,3); aldiz, jaitsi egin dira beste hauetan: alkoholak (-% 18,6) eta elektrizitatea (-% 68,8). Eraitza horietan eragin handia dute zerga horien barne-doikuntzek. Kontzeptu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak 300,0 milioi euro ordaindu dizkie Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei (% 0,6ko igoera); lehenengoak 68,6 milioi euro jaso ditu (% 7,0 gutxiago) eta bigarrenak 231,4 milioi (% 3,1 gehiago).

f) Gainerako zeharkako zergak

Gainerako zeharkako zergen kasuan, % 10,0ko igoera izan da, guztira. Zehazki, bilketak gora egin du honako zerga hauetan: ondare-eskualdaketen gaineko zerga (% 5,1), egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga (% 30), zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia (% 7,0), berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga (% 17,2) eta aseguru-primen gaineko zerga (% 10,7). Joko-jardueren gaineko zergan, aldiz, behera egin du (-% 45,4).

g) Tasak eta beste sarrera batzuk

Tasen eta beste sarrera batzuen zioz bildutakoak % 0,8ko igoera izan du; 38,7 milioi eurotik ekitaldi honetan bildutako 39,0 milioi eurora igo da. Jokoaren gaineko tasek % 57,2ko gehikuntza izan dute, batez ere honako hauek izan duten igoeraren eraginez: makinak eta tresna automatikoen tasak (% 59,6; 8,3 milioitik 13,2 milioira igaro da, aurreko ekitaldiko ostalaritza-sektorearen itxieraren eraginez) eta, neurri txikiagoan, txartel eta beste apustu batzuen tasek (% 24,1) eta bingo-jokoarenak (0,7 milioi eurotik 1,6 milioi eurora). III. kapituluko gainerako kontzeptuetan, behera egin dute berandutze-interesek (-% 12,2), premiamendu-errekarguek (-% 31,4) eta zerga-zehapenek (-% 24,1).

h) Estatuarekiko doikuntzak

Abuztuan ez da transferentziarik egin Estatuarekiko doikuntzak direla-eta; horrela, bada, haien eraitza (duela hilabeteko txostenean jasoa eta ekitaldiko lehen bi hiruhilekoetako bilketa-doikuntzei eta aurreko ekitaldiko likidazioari dagokiena) txosten horretan adierazita dagoen moduan mantentzen da.



TRIBUTU ITUNDUEN BILDUTAKOA. Aurreko ekitaldiarekiko alder.
RECAUDACIÓN TRIBUTOS CONCERTADOS. Comparación ej. anterior

2022

Aldiak: urtarrila-abuztua
Periodos: enero-agosto

Deskribapena Descripción	Bilketa Garbia Recaudación Neta		Diferentzia Diferencia	Gehik %Incr	Bilk.Aurrek Pto.Recaud.	Bet.% %Ejec
	2022	2021				
ATXIKIPENAK: NORBERE LAN-ERRENTAK / RETENCIONES RENTAS DE TRABAJO	2.044.785.183	1.923.884.594	120.900.590	6,3	3.020.000.000	67,7
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	62.101.333	63.963.703	-1.862.370	-2,9	88.000.000	70,6
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	30.059.919	29.881.176	178.743	0,6	48.000.000	62,6
ONDARE IRABAZIEN GAINKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	20.511.767	19.979.779	531.988	2,7	32.000.000	64,1
SARIEN GAINKO KARGA BEREZIA / GRAVAMEN ESPECIAL SOBRE PREMIOS	23.018.120	6.800.944	16.217.176	238,5	25.000.000	92,1
LANBIDE, ARTE ETA ENPRESA JARDUEREN ZATIKAKO ORDAINKETAK / FRAC. ACT. PROFES. EMPRES. Y ARTS	55.471.282	47.815.539	7.655.743	16,0	80.000.000	69,3
PFEZ KUOTA DIFERENTZIAL / CUOTA DIFERENCIAL IRPF	-112.273.868	-141.215.099	28.941.231	20,5	-11.000.000	*
PFEZ GUZTIRA / TOTAL I.R.P.F.	2.123.673.736	1.951.110.635	172.563.101	8,8	3.282.000.000	64,7
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIGARRIAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL MOBILIARIO	62.101.301	63.963.669	-1.862.367	-2,9	88.000.000	70,6
ATXIKIPENAK: KAPITAL HIGIEZINAREN ETEKINAK / RETENCIONES RDTOS CAPITAL INMOBILIARIO	30.059.677	29.880.913	178.764	0,6	48.000.000	62,6
ONDARE IRABAZIEN GAINKO ATXIKIPENAK / RETENCIONES GANANCIAS PATRIMONIALES	20.511.764	19.979.776	531.988	2,7	32.000.000	64,1
SOZIJATEAK KUOTA DIFERENTZIALA / CUOTA DIFERENCIAL DE SOCIEDADES	457.633.786	351.096.484	106.537.302	30,3	451.000.000	101,5
SOZIJATEAK GUZTIRA / TOTAL SOCIEDADES	570.306.528	464.920.841	105.385.687	22,7	619.000.000	92,1
EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GIZ / IMPUESTO S/RENTA NO RESIDENTES	32.912.393	14.562.019	18.350.374	126,0	24.300.000	135,4
OINORDETZEN ETA DOHAINTZEN GIZ / IMPUESTO SOBRE SUCESIONES Y DONACIONES	50.058.195	62.780.892	-12.722.698	-20,3	86.400.000	57,9
ONDAREAREN GAINKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO	78.292.652	80.032.884	-1.740.232	-2,2	82.000.000	95,5
KREDITU ERAKUNDEETAKO GORDAILUEN GIZ / IMPTO.S/DEPOSITOS EN ENTIDADES DE CREDITO	15.483.733	14.782.528	701.205	4,7	17.300.000	89,5
ENERGIA ELEKTRIKOAREN EKOIZPENAREN GIZ / IMPTO.S/PRODUCCIÓN ENERGIA ELÉCTRICA	12.239	6.412.004	-6.399.765	-99,8	20.000.000	0,1
IRAUNGITAKO ZUZENEN ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS DIRECTOS						
BESTELAKO ZUZENEN ZERGAK GUZTIRA / TOTAL RESTO IMPUESTOS DIRECTOS	176.759.211	178.570.327	-1.811.116	-1,0	230.000.000	76,9
ZUZENEN ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS DIRECTOS	2.870.739.475	2.594.601.803	276.137.672	10,6	4.131.000.000	69,5
BEZ: KUDEAKETA PROPIA / IVA GESTIÓN PROPIA	2.110.873.129	1.882.032.150	228.840.980	12,2	2.069.013.400	102,0
EKARPENEN LEGEAREN ARABERAKO BEZ-DOIKUNTZA / IVA AJUSTE LEY APORTACIONES	-643.532.003	-490.351.356	-153.180.647	-31,2		*
ONDARE ESQUALDAKETEN GIZ / IMPTO. TRANSMISIONES PATRIMONIALES	59.266.645	56.378.598	2.888.048	5,1	92.000.000	64,4
EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUTEN GIZ / IMPTO. ACTOS JURÍDICOS DOCUMENTADOS	16.909.497	13.006.280	3.903.217	30,0	19.500.000	86,7
GARRAIOBIDE JAKIN BATZUEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS MEDIOS TRANSPORTE	8.479.677	7.926.923	552.754	7,0	12.000.000	70,7
ZERGA BEREZIAK: KUDEAKETA PROPIA / IMPTO. ESPECIALES GESTIÓN PROPIA						
ALKOHOL ETA EDARI ALKOHOLDUNAK / ALCOHOL Y BEBIDAS DERIVADAS	882.716	1.084.033	-201.316	-18,6	1.873.963	47,1
TARTEKO EKOIZKINAK / PRODUCTOS INTERMEDIOS	46.998	40.102	6.896	17,2	141.637	33,2
HIDROKARBURUAK / HIDROCARBUROS						
Barne eragiketak(tasa autonomikoa salbu) / Op. interiores(excl.Tipo autonómico)	500.719.172	483.736.506	16.982.666	3,5	793.642.500	63,1
Tasa autonomikoa / Tipo autonómico	-18	-4.146	4.127	99,6		*
TABAKO LANAK / LABORES DE TABACO	91.818.755	77.505.692	14.313.063	18,5	171.326.000	53,6
GARGARDOA / CERVEZA	645.184	329.396	315.788	95,9	1.007.800	64,0
ELEKTRIZITATEA / ELECTRICIDAD	5.181.017	16.595.462	-11.414.446	-68,8	24.691.100	21,0
HIDROKARBURUEN TXIKIZKAKO SALMENTEN GIZ / IMPTO.S/VENTAS MINORISTAS HIDROCARBUROS	-1.365	-40.659	39.294	96,6		*
ASEGURU PRIMEN GAINKO ZERGA / IMPTO. S/PRIMAS DE SEGUROS	38.060.779	34.385.225	3.675.554	10,7	52.000.000	73,2
JOKU JARDUERAREN GAINKO ZERGA / IMPTO. S/ACTIVIDADES DE JUEGO	1.505.910	2.760.546	-1.254.637	-45,4	4.500.000	33,5
BEROTEGI-EFEKTUOKO GAS FLUORADUNEN GIZ / IMPTO.S/GASES FLUORADOS EFECTO INVERNADERO	808.042	689.531	118.510	17,2	1.300.000	62,2
FINANTZA-TRANSAKZIOEN GIZ / IMPTO. S/TRANSACCIONES FINANCIERAS					80.624.000	
ZENBAIT ZERBITZU DIGITALEN GIZ / IMPTO. S/DETERMINADOS SERVICIOS DIGITALES	1.591.483		1.591.483		7.900.000	20,1
IRAUNGITAKO ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS EXTINGUIDOS INDIRECTOS						
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / TOTAL IMPUESTOS INDIRECTOS	2.193.255.618	2.086.074.283	107.181.335	5,1	3.331.520.400	65,8
BINGOA / BINGO	1.640.982	733.000	907.982	123,9	1.200.000	136,7
MAKINA ETA APARATU AUTOMATIKOAK / MÁQUINAS Y APARATOS AUTOMÁTICOS	13.182.194	8.259.763	4.922.431	59,6	20.000.000	65,9
TXARTELAK ETA BESTELAKO APUSTUAK / BOLETOS Y OTRAS APUESTAS	2.575.617	2.074.700	500.917	24,1	3.200.000	80,5
JOKO-TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS DE JUEGO	17.398.793	11.067.463	6.331.330	57,2	24.400.000	71,3
PREMIAMENDU ERREKARGUA / RECGARGOS DE APREMIO	6.034.915	8.799.757	-2.764.842	-31,4	12.000.000	50,3
BERANDUTZA KORRITUAK / INTERESES DE DEMORA	9.597.972	10.927.784	-1.329.812	-12,2	17.300.000	55,5
ZEHAPENAK / SANCIONES	6.002.045	7.912.895	-1.910.851	-24,1	13.000.000	46,2
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA / TOTAL TASAS Y OTROS INGRESOS	39.033.725	38.707.900	325.825	0,8	66.700.000	58,5
ESTATUAREN ITUNDUTAKO TRIBUTUAK GUZTIRA DOIKUNTZARIK GABE / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS SIN AJUSTES ESTADO	5.103.028.818	4.719.383.986	383.644.832	8,1	7.529.220.400	67,8
BEZ INPORTAZIOAK / IVA IMPORTACIONES	460.907.609	318.283.952	142.623.658	44,8	685.304.000	67,3
BEZ BARRUKO ERAGIKETAK / IVA OPERACIONES INTERIORES	185.387.149	143.573.918	41.813.231	29,1	372.886.000	49,7
BEZ DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES I.V.A.	646.294.758	461.857.870	184.436.888	39,9	1.058.190.000	61,1
ALKOHOL ETA TARTEKO EKOIZKINEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ALCOHOL Y PROD. INTERMEDIOS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	66.479	25.478	41.001	160,9	95.741	69,4
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	19.450.524	19.677.943	-227.420	-1,2	23.179.400	83,9
HIDROKARBUREN GIZ.B.DOIKUNTZA / AJUSTES IMP. S/HIDROCARBUROS						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	55.197	50.228	4.969	9,9	10.078	547,7
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	-241.791.408	-179.959.542	-61.831.865	-34,4	-250.438.300	*
TASA AUTONOMIKOA / TIPO AUTONÓMICO	18	3.379	-3.361	-99,5		
TABAKO LANEN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/ LABORES DE TABACO						
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	9.577.228	10.044.485	-467.258	-4,7	15.620.900	61,3
GARGARDOAREN GIZ.B. DOIKUNTZAK / AJUSTES IMP. S/LA CERVEZA						
INPORTAZIOAK / IMPORTACIONES	36.002	25.933	10.069	38,8	131.014	27,5
BARRUKO ERAGIKETAK / OPERACIONES INTERIORES	9.365.439	8.491.702	873.737	10,3	10.884.240	86,0
ZERGA BEREZIAK DOIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL AJUSTES IMPUESTOS ESPECIALES	-203.240.521	-141.640.394	-61.600.127	-43,5	-200.516.927	*
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA / TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS	5.546.083.055	5.039.601.462	506.481.593	10,1	8.386.893.473	66,1

* Garrantzi txikiko ratioa / Ratio no significativo